

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 13225** *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 15/2013 Errege Lege Dekretua, abenduaren 13koa, «Administrador de Infraestructuras Ferroviarias» (ADIF) izeneko enpresa-entitate publikoa berregituratzeari eta beste ekonomia-neurri premiazko batzuei buruzkoa.*

Hutsak aurkitu dira «Administrador de Infraestructuras Ferroviarias» (ADIF) izeneko enpresa-entitate publikoa berregituratzeari eta beste ekonomia-neurri premiazko batzuei buruzko abenduaren 13ko 15/2013 Errege Lege Dekretuaren euskarazko bertsioan. Errege lege-dekretu hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2013ko abenduaren 14ko alean, 299. zenbakikoan, argitaratu zen, eta, honen bidez, honako zuzenketa hauek egiten ditugu:

10. orrialdean, 51.1. artikuluan, bigarren lerroaldean, hau dioen lekuan: «Halaber, behartuta dauden subjektuek eduki beharreko erreserben...», honako hau esan behar du: «Halaber, behartuta dauden subjektuen alde eduki beharreko erreserben...».

11. orrialdean, 52.3 artikulua e) idatz-zatian, hau dioen lekuan: «e) Operadore ekonomikoen edo behartuta dauden subjektuen erreserbak...», honako hau esan behar du: «e) Operadore ekonomikoen edo behartuta dauden subjektuen aldeko erreserbak...».